

1. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ibaizabal Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleak gara eta proiektu hau sortzea erabaki dugu, hain zuzen ere inkesta baten bitartez (<https://docs.google.com/forms/d/1bGSQ569VUf1MN3h9kQH9oH1ICjtStpeugM3Wf39r7Lo/e/dit>) kultura ezberdinak ezagutzerako orduan gure gizartean hutsune bat dagoela aztertu dugulako.

Leku seguru bat sortu nahi izan dugu non familia, eta bereziki haurra babestuta eta konfidantza sentituko duen. Bertan, kultur ezberdinetako ezagutzak konpartituko ditugu, kultur hauen inguruan ezagutza gehiago eduki ahal izateko.

Hau guztia aurrera eraman ahal izateko, bertan egongo diren familien kulturen ezagutza ezberdinak partekatuko dira, guztiok guztiongandik ikasi ahal izateko. Horrez gain, munduan zehar dauden kultura ezberdinak ere landuko dira eta horretarako hainbat proiektu ezberdin egingo dira. Helburu nagusia kultura ezberdinen ezagutza maila handitzea izango litzateke aniztasuna bultzatuz.

Laburbilduz, gizarteratzea bultzatzeko hainbat ekintza egitea erabaki dugu, hala nola, banakako edo taldekako terapia-orduak, meditazio-klaseak eta askatasuna (psikomotrizitatea) adierazten duten klaseak etab.